



## MERKATARITZA MAHAIA

2023ko martxoak 13

### GAI-ZERREDA:

- ✓ Ongi etorria.
- ✓ Sektorearen egungo egoeraren azterketa
- ✓ Oraingo proiektuak:
  - Getxo Bono 2023: kanpainari buruzko datuak
  - Elikadura jasangarriaren aldeko merkataritza-sarea
  - PERCO
  - GetxoAktibaTU!
  - “Lonjak Piztu” dirulaguntza
  - “Merkataritza Digitala” dirulaguntza
  - 2022. eta 2023. urtean dinamizazio laguntzak
  - ONLINE prestakuntzak eta Batuz Sistema
  - Getxo Moda 2023
  - 2022ko kontrataziorako laguntzak
- ✓ Ideia eta proposamen berriak

### BERTARATUAK: (% 100)

DEITUTAKOAK		BERTARATU AK:	ETORRI EZ IZANA	
			Arrazoa emanda	Arrazoirik eman gabe
Algorta-Andra Mariko ordezkaria	Jokin Aresti (IÑAKI BITXITEGIA)	X		
Algorta-Andra Mariko ordezkaria	Hutsik			
Portu Zaharra, Kirol Portua eta Neguriko ordezkaria	Kimetz Garate (ZURIKALDAI NEGURI)	X		
Romoko ordezkaria	Leire Martin (Expert Cordevi)	X		
Areetako ordezkaria	Sara Mata (COLORES)	X		

Areetako ordezkaria	Itxaso Zelaia (JUAN MARI HARATEGIA)	X		
Algortako Dendak	Oriente Enríquez	X		
Getxo Enpresa	Manu Garay	X		
Romo Bizirik	Ainhoa Calderón	X		
Getxoko Udala - Ekonomia Sust. Arloa	Juan Jesús Blanco	X		
	Mirene Zabalgogezcoa	X		
	Aitor Zorrilla	X		

## EDUKIAK

### 1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Mirene Zabalgogezcoak, ekonomia sustapeneko arloko teknikariak, bilerara gerturatutakoei ongietorria egin die. Jarraian, talde-eztabaida txiki bati ekin zaio udako denboraldia nolakoa izan den eta sektorearen aurreikuspenak zeintzuk diren azaltzeko. Ildo horretatik, bileran batutakoek honako hau adierazi dute:

### 2. Sektorearen egungo egoeraren azterketa

Bertaratutakoak ados daude urte hasierak “motelak” direla adieraztearekin. Are gehiago, martxoa otsaila baino okerragoa izan ohi da. Ildo horri jarraikiz, merkataritza mahaiak orokorrean eskertzen du bere eskea erantzun izana eta Getxo Bono 2023 kanpaina martxora aurreratzea. Dena den, ez dira adostasunera iritsi kanpaina otsailera edo martxoaren hasierara aurreratzea bideragarria ote den:

Coloresko eta Areetako ordezkari den Sara Mataren iritzia: “Beherapenen Azoka eta Getxo Bonoa dagokion hilaren hasieran egin behar dira bata bestearen atzetik”.

Tejidos Lindau dendako Oriente Enríquezek Algortako Dendak elkarteko ordezkariak, ordea, honako hau adierazi du: “Getxo Bonoa martxoaren hasierara aurreratzen bada, merkealdiaren ondoren joango litzateke. Gero Beherapenen Azoka etorriko litzateke, bonuekin bat. Ez du zentzurik”.

Bi aldeen arteko irizpide-alde argiaren ondorioz, Mirene Zabalgogezcoa Ekonomia Sustatzeko Arloko teknikariak gogorarazi du sektoreko aurreko mahaietan eskatu zela kanpainen artean tartea egoteko. Bestela, bezeroak establezimenduetan etengabe eskaintzak eta sustapenak izatera ohitzen dira.

### 3. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

#### a) Getxo Bono 2023

Mirene Zabalgogezcoa Ekonomia Sustatzeko Arloko teknikariak kanpainari atxikitako establezimenduen kopurua azaldu du: 278 izan dira. Bere esanetan, ostalaritza mahaiak eskatu ondoren, kanpaina honetan ostalaritzaren sektoreak ez du Getxo Bono 2023



# Getxo

*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

kanpainan parte hartuko. Modu berean, joan den urtekoarekin alderatuta, aldaketak adierazi ditu:

- pertsona bakoitzeko bonu gutxiago (guztira, 6): 5 euroko 3 deskontu-bonu eta 10 euroko beste 3.
- Establezimendu bakoitzean trukatzeko gehieneko bonu kopurua.

Gainera, jakinarazi du laster kanpainari atxikitako establezimenduei posta elektronikoko bat bidaliko zaiela Getxo Bono kanpainara sartzeko gakoekin. Hala, elkarteko ordezkariari eskatu die beren bazkideei berri emateko posta elektronikorik jasotzen ez badute, desiragarriak ez diren posten erretilua, SPAMena begiratu beharko dutela edo Ekonomia Sustatzeko Arloarekin harremanetan jarri beharko direla.

Bestetik, Mirene Zabalgogezkoak balioa eman dio Ekonomia Sustatzeko Arloak egindako aholkularitza-lanari. Faktura sinplifikatuak osatu gabe egiten zituzten saltokiak bisitatu ditu, eta aholkulariak bisita egin ostean, fakturen nahitaezko eremuak zuzendu dituzte eta faktura sinplifikatu zuzenak egiten hasi dira.

Coloresko eta Areetako ordezkari den Sara Matak eskatu du hurrengo Getxo Bono kanpainarako aurrekontua gehitzeko. Eskaerari erantzute aldera, Mirene Zabalgogezkoak dio etorkizunean jarraitu beharreko ibilbidea Merkataritzaren Plan Estrategiko (PERCO) berriak gidatuko duela. Izan ere, urtearen bigarren erdian aurkeztuko da.

[Getxo Bono kanpainaren informazio gehiago.](#)

## **b) Elikadura jasangarriaren aldeko merkataritza-sarea. Kontratatorako laguntzak 2022**

Mirene Zabalgogezkoak sarearen funtzionamendua gogorarazi du, eta jakinarazitakoaren arabera, otsailaren amaieran bi prestakuntza eta sentsibilizazio jardunaldi egin ziren. Laster sareen bitartez jardunaldien edukiak argitaratuko dira.

Horrez gain, Getxon banaketa eredu jasangarria sortzeko balizko ekimen pribatua azaldu du. Banaketa jasangarriaren jardunaldiaren ondorioz lantzen hasi zen, eta elikagaien sektoreko beharrez eta eskeez gain, udalerriko enpresa-parke guztiarenak hartuko dira aintzat. [Informazio gehiagorako.](#)

## **c) PERCO**

Mirene Zabalgogezkoak azaldu du Merkataritzaren Plan Estrategikoaren (PERCO) idazketa amaitzen ari dela. Halaber, parte hartu duten eragileak adierazi ditu: herritarrak, bisitariak, turistak, udal arloak eta merkataritzaren sektorea. Urtearen bigarren hiruhilekoan (ekain-uztailean) aurkeztuko da.

## **d) GetxoAktibaTU!**

Mirene Zabalgogezkoak programaren mamia azaldu du, eta jakinarazi du, ziurrenik, enpresa adjudikazioduna sektorearekin harremanetan jarriko dela ekintza berriak programatzeko. Horrez gain, elkarteetako ordezkariari gonbita luzatu die beren establezimendu bazkideei programaren berri emateko: [Informazio gehiagorako.](#)



Modu berean, PERCO planak berak argituko ditu hurrengo Beherapenen Azoka egiteari eta bere ikuspegiari buruzko zalantzak.

#### e) “Lonjak Piztu” dirulaguntza

Mirene Zabalgogeoazcoak emandako dirulaguntzak aipatu ditu. Negozio onuradunei jarraitzen ari zaie eta aholkuak jasotzen ari dira. [Informazio gehiagorako.](#)

#### f) “Merkataritza Digitala” dirulaguntza

Mirene Zabalgogeoazcoak emandako dirulaguntzak aditzera eman ditu. [Informazio gehiagorako.](#)

Gainera, bere esanetan, eskaera asko TicketBaira egokitzeko izan ziren, eta datu gisa eman du Getxo Bono 2023 kanpainari atxikitako establezimenduen % 17k bakarrik egokitu dituela bere sistemak TicketBaira. Alderdi horrek arloa kezkatzen du.

#### g) 2022. eta 2023. urtean dinamizazio laguntzak

Mirene Zabalgogeoazcoak batez ere elkarteetako ordezkariak azaldutakoaren arabera, L1en justifikazioa dagoeneko fiskalizatuta dago, eta ordaintzeko agindua laster emango da. Horrez gain, L5en justifikazioa ebazteko ez da denbora gehiegi beharko. [Informazio gehiagorako.](#)

2023ko laguntza ildoei dagokienez, apirilaren amaieran argitaratzea espero da.

#### h) ONLINE prestakuntzak eta Batuz Sistema

Laster eutsiko zaie berriz prestakuntza jardunaldiei. [Informazio gehiagorako.](#)

#### i) Getxo Moda 2023

Getxo Enpresak Ekonomia Sustatzeko Arloari proposamena bidaltzearen zain dago baloratu ahal izateko. [Informazio gehiagorako.](#)

#### j) 2022ko kontrataziorako laguntzak

14 laguntza eman dira, horietatik 7 (% 50) saltokietarako. [Informazio gehiagorako.](#)

Ezezaguna da noiz egingo den 2023. urteko deialdia.

### 4. Ideia eta proposamen berriak.

Coloresko eta Areetako ordezkari den Sara Matak hausnarketa egin du kalean jendea ez egoteari buruz eta eskatu du “gauzak sortzeko jarduera gehiago egon dadin”. Mirene Zabalgogeoazcoak Sarari eta bertaratutako gainerakoei gonbita luzatu die GetxoAktibaTU! programan parte hartzeko. Helburua da beste merkataritza establezimendu batzuekin jarduera gurutzatuak egitea.

Juan Mari harategiko eta Areetako ordezkari den Itxaso Zelaiak azaldu du berak atzemandakoaren arabera jendeak merkataritza establezimenduetan astelehenetik



# Getxo

*bizi ezazu*

Ekonomia -Sustapena  
Promoción económica

ostegunera bitartean kontsumitzen duela, baina ostiral, larunbat eta igandeetan kontsumoa nagusiki ostalaritzaren sektorean egiten dela. Algorta-Andra Mari eremuko ordezkari den Jokin Aresti ados dago baieztapen horrekin. Bertaratutako gainerakoak iritzi berekoak dira. Pandemiak gero eta beste faktore batzuk direla eta, hala nola inflazioa, kontsumitzeko ohiturak aldatu dira.

Coloresko Sara Mata kezkatuta dago merkataritza establezimenduetan dauden lapurreta txikiengatik. Gero eta maizago gertatzen dira. Gaiari buruz, Mirene Zabalgogezcoak aipatu du webgunea eguneratuko dela lapurreta, diru faltsuaren... kasuetan zer udal arlotara jo behar den jakiteko.

Expert Cordeviko eta Romoko eremuko ordezkari den Leire Martinek udalerriko obren egoeraren gainean galdetu du. Mirene Zabalgogezcoa prest dago saltoki bakoitzaren egoerari erantzuteko, baldin eta kale zehatzari eta saltoki interesdunetan izan dezakeen eraginari buruz kontsultatzen bazaio, baina ezin du udalerriko obra guztien txosten zehatza bidali establezimendu bakoitzean izango duten eraginarekin

Obrei eta sortutako eraginei eutsiz, Ekonomia Garatzeko Arloko Juan Jesús Blancok aurreratu du laster barneko informazio bilera bat egingo dutela Frantziako Tourraren gaia aztertzeko. Informazio gehiago duenean, enpresa-parke guztiari helaraziko dio. Horrez gain, jakinarazi du laster gutxienez bi gurutzaontzi aterako direla Getxotik. Gurutzaontzi horietako bidaiariak udalerriko saltokietara erakartzeko eztabaida ireki da. Turismo Arloari helaraziko zaio portuan sustapen jarduerak egiteko aukera.

Juan Mari harategiko Itxaso Zelaiak GetxON marka berriaren eguneratze egoerari buruz kontsultatu du. Mirene Zabalgogezcoak azaldutakoari jarraikiz, bukatuta dago eta sustapen estrategia ezartzeko prozesua hasi da. Seguru asko, irailean egingo da.

Mirene Zabalgogezcoak jakinarazi du taxien ordenantza berria onartu dela, taxietan publizitatea egiteko aukera barne hartzen duena (bertaratuentzako aukera-eremua). BAO, 50. zk., 2023ko martxoaren 13koa. Taxien sektoreak publizitate-proiektua prest duenean, gainerako sektoreei helaraziko zaie informazioa.

## 5. Hurrengo urratsak:

- Enpresen Kontsulta Foroa deitzea apirilaren 27an. Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte.



## MERKATARITZAREN MAHAIAREN ERABAKIAK (2023/03/13):

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Bileraz gero
2. Webgunea eguneratzea eta lapurretaren, diru faltuaren... kasuetan nora jo behar den aditzera ematea	Zerbitzuko teknikariak	Bileraz gero
3. Frantziako Tourrari buruzko informazioa bidaltzea	Zerbitzuko teknikariak	Tourraren barne bileraz gero
4. Egutegia bidaltzea gurutzaontzien datekin	Zerbitzuko teknikariak	Bileraz gero
5. Turismo arloari gurutzaontzien gainean merkataritzaren sektoreak dituen kezkak helaraztea	Zerbitzuko teknikariak	Bileraz gero
6. Hautagaia eskaintzea Algorta-Andra Mariko ordezkariaren postu hutserako	Sektoreko enpresak	Bileraz gero
7. Taxi teknikoetako publizitatearekin lotutako informazio interesgarria helaraztea	Zerbitzuko teknikariak (Taxiak)	Taxiak publizitate-proiektua prest dutenean